



Nolakoa da EGA?

EGA lortzeko hiru proba edo azterketa gainditu behar dira:

- 1) Atariko Proba
- 2) Azterketa idatzia
- 3) Ahozko Proba

Atariko Proba. 100 item dituen test erako azterketa da eta hori gainditzeko 75 erantzun zuzen eman behar dira. Lehen zatia grabazio bat entzun eta horri buruzko galderak erantzutea da. Ondoren, gainontzeko 85 item egiteko ordubete izaten da.

Azterketa idatzia. Entzutezko ariketa bat du hasieran. Ondoren, bi ordu eta hogei minututan honako ariketa hauek egin behar dira: *Idazlana, Esaldiak berridatzi, Lexikoa* eta *Irakurriaren ulermena*. Azterketa gainditzeko ariketa horietako bakoitza gainditu behar da, atalez atal gutxieneko puntuazioa lortuz. Esaldiak berridatzi eta Lexikoa ariketetan konpentsazio-sistema dago.

Ahozko Proba. Aurreko biak gaindituta, azken proba honetan bi ariketa hauek egin behar dira: batetik gai baten azalpena eta bestetik bat-bateko elkarrizketa saioa. Bost bat minutu ariketa bakoitzerako.

EGA. Jakingarriak

Adina? Gutxienez 17 urte eduki behar dira edo 2008an bete.

Matrikula non? Hezkuntza Sailaren lurralde ordezkaritzetan, Bilbon, Donostian eta Gasteizen.

Zenbat azterketa urtean? Urtero bi bider egiten dira EGA agiria lortzeko azterketak. Pentsan iragartzen dira matrikula egiteko deialdiak.

Azterketak non? Matrikula egiteko dokumentazioan azterketa tokiak, egunak eta orduak ere zehazturik izaten dira: hiriburuetan egiten dira.

Konpentsazio-sistematik badago? Bai. Lexikoaren eta Esaldiak berridatzeko ariketaren kalifikazioak batu egingo dira eta bien artean gutxienez 5 puntu lortu beharko dira. Batean zein bestean, gutxienez % 40 aterara beharko da.

Emaitzak jakiteko? Azterketetako emaitzen zerrendak noiz eta non argitaratuko diren ere matrikula-dokumentazioan zehazten da.

Notarik gordetzen da? Ez. Suspendituz gero, berriz hasi behar da prozesu osoa.

Erreklamaziorik egin daiteke? Bai. Kalifikazioak berrikusteko eska dezake azterketariak berak, baita azterketa idatziaren zuzenketa ikusteko ere, horretarako dauden epeetan.

Azterketa idatzia egin duenari bakarrik erakutsiko zaio, esandako egun eta orduan.

Ahozko azterketaren emaitza berrikustea eskatu ahal izateko, azterketariak grabatua izan behar du saioa.

Aztertzailleak nor dira? Esperientzia handiko euskara irakasleak dira EGAKo aztertzailleak, Hezkuntza Sailak izendatuak.

EGA

2008



Euskararen Gaitasun Agiria

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 1982an sortutako euskara agiria da. EGAK lehenagoko hainbat erakunderen euskara azterketen tradizioa jasotzen du, batez ere Euskaltzaindiaren D tituluarena.

EGA ALTE (Association of Language Testers in Europe) erakundeko kide da: azterketak prestatzen, antolatzen eta gauzatzen jokabide kode estandarri jarraitzen zaio. Europako Kontseiluaren Erreferentzia Markoaren barruan C1 maila dauka: A1, A2, B1, B2, C1, C2.

EGA egiaztagiriak honako hau adierazten du: EGAdunak euskaraz badakiela behar hainbateko trebetasunez, ahoz eta idatziz; baita Euskaltzaindiak erabakitako arauak ere.

EGAK hainbat lanpostutarako (arlotan publikoan zein pribatuan) eskatzen den euskara mailaren egiaztagiri balioa du.

EGA ez da ezin jakintza arlo berezitarako agiria; alegia, ez da bereziki irakaskuntzarako, edo kazetaritzarako edo itzulpen gintzarako agiria.